

ESKOLA PUBLIKOAREN ALDE! HEZKUNTZA LEGE HONI EZ!

Gaur hemen bildu gara berriro ere, eta argi utzi dugu euskal eskola publikoaz harro gaudenok milaka gara. Zorionak guztioi! PUBLIKOAZ HARRO!

Hezkuntza lege honi ez! Ozen esateko unea da eta indar politikoak interpelatzeko ordua, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Legeak duen norabidea guztiz aldatu dezaten exijitzeko. LEGE HONI, EZ!

Hezkuntza Saila sare pribatuaren aldeko neurriak aspaldidanik eta etengabe hartzen ari da. Publikoa ahoan baina eskola pribatua dute gogoan Jaurlaritzako kideek eta eskola publikoa pixkanaka desegiteko bidean jartzen ari dira.

Orain, Hezkuntza Lege berriak Euskal Hezkuntza Zerbitzua delakoaren bidez, eskola publikoa eta pribatua berdindu nahi ditu, muzin egiten dio publikoaren hazkundera bermatzeari eta ondorioz, sistema duala finkatzen du, horrek dakarren segregazioarekin. Hori tranpa bat da. Baina guk garbi dugu: **PRIBATUA EZ DA PUBLIKOA!**

EEPH Topagunea osatzen dugun eragileok eskola publikoa hezkuntza-sistemaren benetako ardatz izango duen hezkuntza-sistema nahi dugu, gizarte-kohesiorako eta berdintasunezko hezkuntza euskaldun bat lortuko duena. Horregatik:

- 1- Sare publikoa sendotzea eta handitzea proposatzen dugu, herritar guztientzako eskubideen bermea baita. Horretarako, zentzuzko planifikazioa egin behar da, eskola plazen eskaintza errealitatera egokitu eta sare pribatuaren gehiegiko eskaintza ez itundu; sare publikoari beharrezkoak dituen baliabide guztiak eman eta publikazio bideak zabaldu sare honen parte izan nahi duten ikastetxeentzat.
- 2- Gure hezkuntza ere, euskara, galtzaile aterako da. Euskal eskola publikoa da ikasle gehien euskalduntzen duena eta urteetako ibilbideak argi utzi digu murgiltze ereduaren bidez lortzen dela, behar diren baliabideak emanez eta tokian tokiko errealitatea

kontuan. Irteera profil bat ezartzea ez da nahikoa izango dugun erronkaren aurrean. Nola bermatuko da ikasleen B2 maila hori ikastetxe guztietan eta ikasle guztientzako? EUSKARAREKIN ATZERAPPAUSURIK EZ!

- 3- Lege honekin, hezkuntza-komunitatearen zeregina bigarren maila batean geratzen da: guraso elkarteetan eta partehartze organoetan egiten den lana ordain ezinezkoa da eta honi aitortza eta tokia eman beharko lioke legeak: elkarrekin lan egingo duten eskola publikoen sare solidarioa nahi dugu, herri eta auzoetan txertatua Gure eskoletan egunero elkarbizitza eta partehartze lezioak ematen dizkiogu gizarte guztiari. Hori ez dugu galtzen utziko.
- 4- Legeak erlijioaren eskaintza derrigorrezkoa mantenduko du eta ideario erlijiosoaren eskaintza finantzazio berbera emango zaie. Bada garaia erlijioa, edozein dela ere, ikastetxeetatik kanpo uzteko. ERLIJIOA ESKOLATIK KANPORA!

Lege hau pribatizatzailea da, uko egiten dio eskola publikoa sistemaren ardatza bihurtzeari, ez du amaituko segregazioaren arazoarekin, doktrinatzeari onartzen du eta euskararen normalizazioan atzerapausoa da.

Ondorioz, denontzako hezkuntza eskubide berbera bermatzeko, gure sistemaren dualtasunarekin eta segregazioarekin amaitzeko, euskara eta euskal curriculumak bultzatzeko eta laikotasun erreala lortzeko, lege hau geratu behar dugu.

Eskola publikoaren defentsan :

GORA EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA!

EZ, EZ, EZ, LEGE HONI EZ!

¡POR LA ESCUELA PÚBLICA! ¡NO A ESTA LEY DE EDUCACIÓN !

Hoy nos hemos reunido aquí una vez más y hemos dejado claro que somos miles de personas las que estamos orgullosas de la escuela pública vasca.. ¡Enhorabuena! PUBLIKOAZ HARRO!

¡No a esta ley de educación! Es el momento de decirlo en voz alta y de interpelar a las fuerzas políticas para exigirles que cambien por completo el rumbo que tiene la Ley de Educación del País Vasco. ¡NO A ESTA LEY!

El Departamento de Educación viene adoptando desde hace años medidas de apoyo permanente a la red privada. Con la escuela pública en la boca pero con la escuela privada en la mente, los miembros del Gobierno están poniendo la escuela pública en vías de desmantelamiento progresivo.

Ahora, la nueva Ley de Educación pretende, a través del denominado Servicio Vasco de Educación, igualar la escuela pública y la privada, desdeña garantizar el crecimiento de la pública y, en consecuencia, consolidar el sistema dual con la segregación que ello conlleva. Es una trampa. Pero nosotras lo tenemos claro: ¡LO PRIVADO NO ES LO PÚBLICO!

Los agentes que conformamos el EEPH Topagunea queremos un sistema educativo en el que la escuela pública sea el verdadero eje del sistema educativo para la cohesión social y la consecución de una educación euskaldun igualitaria. Por ello:

1. Proponemos fortalecer y ampliar la red pública, que es garantía de derechos para todas y todos. Para ello es necesario realizar una planificación razonable, adecuar la oferta de plazas escolares a la realidad y no concertar una oferta excesiva de la red privada; dotar a la red pública de todos los recursos necesarios y ampliar los cauces de publicación para los centros que quieran formar parte de esta red.
2. Nuestra lengua, el euskera, también saldrá perjudicada. La escuela pública vasca es la que más alumnado euskalduniza y la trayectoria de años nos ha dejado claro que se consigue mediante el modelo de inmersión, aportando los recursos necesarios y teniendo en cuenta las diferentes realidades locales. Establecer un perfil de salida no es suficiente ante el reto que vamos a tener. ¿Cómo se garantizará este nivel B2 en todos los centros y para todo el alumnado? ¡NI UN PASO ATRÁS CON EL EUSKERA!

3. Con esta ley, el papel de la comunidad educativa queda relegado a un segundo plano: el trabajo que se realiza en las asociaciones de familias y en los órganos de participación es impagable y la ley debería darle reconocimiento y espacio: queremos una red solidaria de escuelas públicas que trabajen juntas, integrada en pueblos y barrios. En nuestras escuelas se dan lecciones diarias de convivencia y participación a toda la sociedad. Eso no lo vamos a dejar perder.
4. La ley mantendrá la oferta obligatoria de religión y otorgará la misma financiación a los centros con ideario religioso. Ya es hora de dejar la religión, sea la que sea, fuera de los colegios. ¡FUERA LA RELIGIÓN DE LA ESCUELA!

Esta ley es privatizadora, se niega a afianzar la escuela pública en el eje del sistema, no acabará con el problema de la segregación, acepta el adoctrinamiento y supone un retroceso en la normalización del euskera.

En consecuencia, para garantizar el mismo derecho a la educación para todas las personas, para acabar con la dualidad y segregación de nuestro sistema, para impulsar el euskera y el currículum vasco y para lograr la laicidad real, tenemos que parar esta ley.

En defensa de la escuela pública:

GORA EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA!

EZ, EZ, EZ, LEGE HONI EZ!

Manifestazioaren deitzaileak / Convocantes :

Gasteiz, Oion, Bilbo, Santurtzi, Oarsoaldea, Astigarraga, Donostialdea, Aiztondo eta Lasarte-Oriako plataformak; Amurrioko Hezkuntza Publikoaren Sarea; Ordiziako Euskal Eskola Publikoko Komunitateak eta Debagoieneko Goieskola; EHIGE, HEIZE, Ikasle Sindikatua, Ikasle Abertzaleak, Ikama, Ikasle Ekintza, Gazte Komunistak, STEILAS, CCOO Irakaskuntza, ESK.

Manifestazioarekin bat egin dutenak/ Adhesiones:

LAB, ELA, Ernai, Mujeres del Mundo-Munduko Emakumeak "Babel",
FeministAlde Elkartea, Mugarik gabe, Ongi etorri errefuxiatuak ,
Bizkaiko SOS Arrazakeria,Komite Internazionalistak, CNT, Azalak
Elkartea .